

JOSÉ PÉREZ DE LAMA  
AKA OSFA  
HACKITECTURA.NET'

Artea  
makina  
(ekosofiko)  
gisa

Guattari  
WikiPlazan



## PRAKTIKA ARTISTIKOEI BURUZ

Féliz Guattarik paradigma etiko-estetiko bat proposatzen du subjektibotasun produkzioaren eta, hedapenez, praktika politikoen *metae-redu* gisa. Testu honetako hipotesiak kontrako bidea proposatzen du ordea, hau da, makina eta ekosofia kontzeptu guattariarrak hartzea gaur egungo arte praktika definitzeko<sup>2</sup>.

## GUATTARIREN MAKINA KONTZEPTUA

Testu honetan Guattarik duen makina kontzeptua erabiliko dugu, *Chaosmosen* (1992) aurkezten duenaren arabera. Guattarirentzat, kontzeptu zeharo polisemikoa da makina, eta hainbat eskalatan eta ñabardura ugari aplikaturik erabiltzen du. Kontzeptuaren adiera orokorra honela deskribatzen du autoreak berak: «Hemenetik aurrera, egiturarekiko aurkaritzan sortuko da makina, betierekotasun sentimenduarekin baitago lotuta egitura, eta makina, berriz, mugatutasun, prekariotasun, suntsipen eta heriotza kontzientziarekin» (Guattari, 1995: 58).

Beste hurbilketa batean autoreak makinikoaren *gorabehera* teknologiko, sozial, semiotiko eta axiologikoak identifikatzen ditu, eta honek «berekin dakar makina teknikitik haratago doan makina kontzeptua berreraikitzea» (1995: 34).

Makina bat, Guattarirentzat, errealaren halako gertatze bat eragiten duten osagai heterogeneoen mihizatze bat izango litzateke; osagai sozialak baitira, eta subjektiboak, teknologikoak, energiakoak, gorputzekoak, espazio-denborazkoak... Horrela, Ford osteko makina kapitalistaz hitz egiten dugu, telebista makinaz, 2.0 web makinaz, unibertsitate makinaz, gizarte zentro makinaz; desira makinez, sorkuntza estetikorako makinez (1995: 54). Nire interpretazioan —*Foucaulten* bezala (Deleuze, 1987)—, makinek ikusgarria eta enuntziagarria mugatzen dute, eta halako botere harreman batzuk ezartzen dituzte.

Azpirarratzekoa genuke Féliz Guattarik makinikoan jartzen duen enfasia, subjektibotasun produkzioarako instantzia gisa:

«Subjektibotasun psikologikotik bereizirik mantendu beharko ote genituzke komunikabide, informatika, telematika eta robotikaren produkzio semiotikoak? Makina sozialak Ekipamendu Kolektibo izen orokorraren pean bil daitezkeen bezala, informazio eta komunikazio makina teknologikoez giza subjektibotasunaren muinean dihardute, ez bakarrik memoria eta inteligentziaren barnean, baizik eta sentsibilitate, afektu eta mamu inkontzienteen barnean. Subjektibotasunaren dimentsio makiniko hauen aitortzeak, ezagutzak, gure birdefinitze ahaleginean, subjektibotasun produkzioa daramaten osagaien heterogeneotasuna azpirarratzera garamatza» (1995: 4).

Makina kontzeptuaz egin behar dugun erabile-ra azaltzen ahalegintzeko, egoki da Guattarik batzuetan agentziazte kontzeptuaren alternatiba gisa erabiltzen duela gogoratzea:

«Agentziazte esango diogu fluxutik deduzitutako singularitasun eta ezaugarrien —aukeratu, antolatu, estratifikatu— konstelazio osoari, horiek guztiek modu artifizial eta naturalean bat egiten dutenean (koherentzia); agentziazte, ildo honetatik, benetako asmakuntza da» (Deleuze eta Guattari, 2004: 448).

[...] «agentziazte batek bi segmentu ditu, edukizkoa bata eta adierazpenekoa bestea. Alde batetik, gorputzen agentziazte makinikoa da, ekintza eta pasioena, elkarrekin erreakzionatzen ari diren gorputzen nahasketa (*intermingling*); bestetik, enuntziazio agentziazte kolektiboa da, ekintza eta

diskurtsoena (*enuntziatuak*), gorputzei atxikiriko gorputz gabeko eraldaketena» (2004: 98).

Aurreko paragrafoak *Mille Plateaux* (1980) lanekoak diren bitartean, *Chaosmosen* Guattarik bultzatu egiten du makina kontzeptuaren erabilera, subjektibotasun produkzioa aztertzeko. Hala eta guztiz, agentziate-makinen beste diagrama bat proposatzen du, horien lau funtzio ontologikoak jasotzen dituen bat, honakoak bailirateke: 1/ filum makinikoa; 2/ balore unibertso gorpuzgabeak; 3/ energia-espazio-denbora fluxuak; eta 4/ lurralde existentzialak (edo haragitze kaosmikoa); lehen biak posiblearen (birtualaren) ordenakoak dira eta beste biak errealaren ordenakoak; lehena eta hirugarrena adierazpenaren, espresioaren ordenakoak/diskurtsiboak, eta bigarrena eta laugarrena edukiaren ordenakoak/ ez diskurtsiboak (1995: 58-60, 124-126).

Funtzio hauek abstraktu samarrak izan badaitezke ere guretzat, zalantzarik ez dukegu pentsatzeko, esaterako, arkitekturan oso oihartzun bizia dutela, ezen arkitektura, interpretazio tradizionaletik gehiegi urruntzeke, teknologia, balore, fluxu eta espazio konposiziotzat har dezakegu. Gauza bera gertatzen da objektua gainditzen duten praktikekin, konparazioa Bourriaudek aurkezten dituen erlazio praktikekin (2008).

Guattarik behin eta berriro berresten du paradigma etiko-estetikoa, sistema kapitalistan berezkoak diren zientifikoarekiko edo ekonomiko-produktibistarekiko aurkaritaz, subjektibotasun produkzioaren bere metaeredua egiteko. Alabaina, artera hurbiltzera jotzen du —musikara, pinturara—, era tradizional samar batez ulertzen baitu, esperientzia mugatu gisa, unibertso gorpuzgabean eremuan kokaturik, posibleen unibertsoenean, lurralde errealenean baino.

Ildo honetatik, autoreak Lacanen objektu partzialaren (aurpegia, ahoa) gaitasunaren eta arte-objektuaren arteko paralelismoa planteatzen du, subjektibotasun produkzioaren mutazio gunetzat (1995: 18). Arte-objektu edo sorkuntzak, Guattarientzat, denbora itzulezinezko bat

produzitzearren artista, ikuslea eta obra konposizioan sartuko lireratekeen egoerak eragingo lituzke —performance batera goazenean edo hunkitzen gaituen musikako pieza bat entzuten dugunean bezala, esperientzia hori ezin baita birsortu—; eta denbora horrek bilakaerarekin du zerikusia, ez baina izatearekin (1995: 14-15, 19). Esperientzia bizi-bizi honek posibleen beste unibertso batzuetara zabaltzen gaitu, eta subjektibotasun prozesu bereziak abiarazten ditu.

Aldi berean, Guattarik hurrena idatzi zuen, berariaz, arteari buruz:

[...] «arteak ez du sorkuntzaren gaineko monopoliorik, baina muturrera eramaten du koordinatu mutanteak asmatzeko duen gaitasuna; izakiaren ezaugarriak sorrarazten ditu, aurrekaririk gabek berak, sekula ikustekeak, ezin pentsatuzkoak. Paradigma estetiko berri hau eratzeko muga erabakigarria sorkuntza-prozesu hauek duten gaitasunean datza, hots, existentzia-gune gisa, makina auto-poietiko gisa auto-baieztapenerako duten gaitasunean» (Guattari, 1995: 106).

Gure proposamena, beraz, Félix Guattariren argudio hau mugaraino eramatea eta arte praktika bat planteatzea izango litzateke, objektu edo nagusiki espazio artistikoekin lotzen diren esperientziak berak produzitzera mugatzeke, baizik eta makinak sortzera joz ezen hauek, antolaketa moduak, teknologiak, espazioak, gorputzak, desirak eta beste hainbat mihiztaturik, errealaren gertakari berriak izango litzukete emaitzatat; bere produkzioa zentro sozial bat, Euro May Day, software librea produzitzeko komunitate bat, mugaz gaindiko laborategi bat... izan ahal izango litzatekeen arte praktika bat.

Azkenean, makina guattariarren izaera *kaosmikoa* aipatu beharko genuke, *Tratado de Nomadología* lanean (2004) azaltzen den gerrako makinen ideiarekin aldera genezake eta. Egituren ustezko egonkortasunaren aurrean, makinikoa, Guattariren arabera, kaosaren eta agentziateek osatutako konplexutasunaren

antolaketa ezegonkorraren arteko elkarrekin-tza dinamikoan gertatzen da, eta egoera hori kaosmosi kontzeptuaz definitzen du. «Hasierako toles kaosmiko bat zera da, kaosaren botereak konplexutasun handienekoekin batera izan daitezen eragitea [...] Makina, makina suerte guztiak, mugatuaren eta mugagabearen arteko bategitean daude, konplexutasunaren eta kaosaren arteko negoziazio puntuan» (1995: 110-111).

### EKOSOFIA ETA MEDIOEN OSTEKO AROA

Ekosofia gure proposameneko bigarren osagaia izango litzateke. Félix Guattarik dioen moduan (1992), ekosofia hiru ekologiaren, ingurumene-ko edo tekniko, sozial eta mentalaren konposizioaren emaitza izango litzateke. Hiru ekologia hauen konbinaketa da, autore honen iritziz, kapitalismoaren esparruan arituz gero ezinezkoa litzatekeen garapen ekologiko bat bideragarri izateko baldintza.

Ingurumen ekologiari dagokionez, Guattarik diosku ekologia makinikoa izan beharko duela. «Ingurumeneko ekologiari inolako arazorik gabe eman geniezaioke ekologia makiniko kalifikazioa, zeren eta, hala kosmosean nola giza praktketan, sekula ez baita makinez aparteko ezer jorratzen; are gehiago, gerrako makinak besterik ez direla izaten esaten ausartuko nintzateke» (2000: 74).

Guattarik diosku dagoeneko ez dela posible, ezta desiragarri ere, mundu fisikoarekin dugun harremana sare makinikoen bitartekaritza gabe (zentzurik konbentzionalenean ulerturik orain sare horiek); eta, aldi berean, zientziaren eta teknologiaren egungo garapena nahikoa dela munduaren arazo handiei, elikadura, bake eta energiari alegia, irtenbidea emateko. Autoreak egiaztatu egiten baitu hurrena:

[...] «alde batetik, baliabide tekniko-zientifikoen garapen etengabea, horiek ahalmena izan baitezakete ekologi

arazo nagusiak konpontzeko eta gizartearentzat probetxuzkoak diren jarduerak planetan bertan atzera orekatzeko; eta, bestetik, antolatutako indar sozialen eta formazio subjektibo eratuen gaitasunik eza, baliabide horien babesa bilatu eta eraginkor bihurtzeko» (Guattari, 2000: 14).

Makinei zentzu berria ematea da kontua, beste agentziatze batzuk eraikitzea alegia osagai berberetatik edo berdinetatik abiatuta. Honi dagokionez Guattari baikorra zen, bai behintzat idazkietan. Oso ezaguna da subjektibotasun produkzioaren gainean komunikabideez osteko aro bati buruz erabiltzen zuen argudioa:

«Izan bada jarrera moderno-kontrako bat, berrikuntza teknologikoa masiboki errefusatzen duena bera, batez ere informazioaren iraultzari dagokionez. Ezinezkoa da bilakaera makiniko horri buruzko epai positibo edo negatiboa ematea; enuntziatio agentziatze kolektiboen barnean duen antolaketaren mende dago guztia [...] Garapen teknologikoak, arlo berri hauetako gizarte espermentazioarekin batera, gai izango dira, agian, egun jasaten ari garen zapalkuntza-aldi honetatik gu irtenarazteko eta komunikabideez osteko aro bat abiatzeko, honen ezaugarriak komunikabideen erabileraren birjabetzea eta birbereiztea izango baitira» (1995: 5).

Teknosferaren komunikazio dimentsio honek, eta oro har sistema makinikoen subjektibotasun produkzioarako gaitasunak, lotu egiten du ekologia teknikoa ekologia mentalarekin.

Ekologia sozialak, Murray Bookchinek proposatu zuen kontzeptua (2007), azpimarratu egiten du ideia bat, biosferaren eta tekno-feraren arteko harremana, hots, ingurune fisiko-arekiko gure elkarrekin-tza, bitartekari dituelarik produkzio, jakintza eta botere harremanak, ezinbestean kontu soziala delako ideia alegia.





↑ WikiPlaza Figueres, 2009.

«Ekosofia soziala zera izango da, praktika espe- zifikokoak garatzea formak aldatzearen eta be- rrasmatzearen bikotearen barnean, familiaren barnean, hiri testuinguruan, lanarenean, etab.» (Guattari, 2000: 19); eta honi erantsi beharko genioke, erakundeen, estatuaren eta geopolitika- renean.

Hirugarrenik, ekologia mentala izango ge- nuke, honexi eskaintzen baitio Guattarik orrial- de kopuru handiena *Las tres ecologías* lanean. Honek aztertu egiten du haren pentsamendu- ko gai nagusietako bat, subjektibotasun produk- zioarena zehazki.

Guattarik subjektibotasun produkzioa az- pimarratzen du, subjektuak azpimarratu beha- rrean. Subjektu izaera berez ez datorrenaren ideia defendatzen du, ez dela aurrez existitzen alegia tradizioak «individuazioaren azken esen- tziatzat, munduaz jabetze garbi, huts, gogoeta —aurrekotzat, sentsibilitate eta espresibotasun gunetzat— kontzientzia egoeren bateratzaile-» gisa ulertzen bazuen ere (1995: 22).

Produkzio gisako subjektibotasunaren ideia honetatik abiatuz, bigarren kontu bat dugu produkzio hau nagusiki norbanakoagan ez biltzea, baizik eta norbanakoa zeharkatzen duten subjektibatze bektore anitz eta hetero- geneoen konposizioaren emaitza izatea. Talde sozialak, erakundeak, makinak, objektu partzia- lak, hauek subjektibotasuna produzitzen duten instantziak dira edo izan daitezke. *Capitalismo Mundial Integradoko* subjektibotasun normaliza- tuari dagozkion balore unibertsoen eta lurral- de existentzialen homogenotzearen aurrean, Guattarik singulartasunen ugaltzea proposatzen du, ekosofiaren helburu gisa (2000: 71).

Azkenean, paradigma estetikoaren kontua izango genuke. Subjektibotasuna produkzioztat eta singulartasuna konposizioztat hartzen badi- tugu, pentsatu beharko dugu hauek asmakun- tza objektuak, sorkuntza objektuak direla; eta, beraz, bere eredu pribilegiozkoetakoak balira bezala har ditzaketela arte praktikak.

Beste instantzia batzuen aurrean —poli- tikoak, egunerokoak, zientifikoak, gizarte mugimenduenak, makinikoak...—, Guattarik uste du, lehen adierazi dudana moduan, arte praktikak

gaitasun handiagoa duela mutazioak sortzeko, anomaliak eta hausturak eragiteko, existentzia -lurralde berriak asmatzeko, «izakiaren ezauga- rriak sorrarazteko, aurrekaririk gabeak berak, sekula ikustekeak, ezin pentsatuzkoak» (Gua- ttari, 1995: 106).

Orainaren izate biopolitikoak, honetan subjektibotasun produkzioaren gaineko kon- trola baita elementu nagusietako bat, arrazoi nagusietako bat da Guattarik bere arreta arte praktiketara bidera dezan, hots, arte prakti- kek munduaren arrotzasuna agerian uzteko, lurralde-gabetze iraunkorrerako, birbereizteko prozesuak behin eta berriro sortzeko duten gaitasun etengabera. Sistema kapitalistikoak sorkuntza kolektiboak etengabe bereganatzen dituen bitartean, paradigma estetikoak lurralde -gabetze/birlurraldetze prozesu iraunkor bat dakar berekin, birbereizte prozesu etengabe bat.

Gure proposamena, beraz, honakoa dugu: arte praktikek lagatzea bere burua *errealagotzat* hartzen diren beste esparru batzuetan subjek- tibotasun produkzioko prozesuak iradokitzen auto-mugatzen diren *objektu partzialtzat* pen- tsatzeari, eta praktika horiek berezko praktika ekosofikotzat pentsa ditzagula, makina ekosofi- koen sortzaile gisa.

Eszenatoki honetan, zein izango litzate- ke arte praktika baten eta gizarte mugimendu esperimental baten, belaunaldi berriko gizarte zentro baten edo hacker proiektu baten arte- ko aldea? Handiegia ez behintzat. Seguruenik, artearen eta kulturaren historiarekin konekta- tzeko gaitasuna, lanabesetako batzuen espezi- fikotasuna, erabilitako lengoaiak, protagonistek sorkuntza azpimarratzeko erakutsi indarra, jo- korako grina, anomaloa, fikzioa, paradoxa, pla- zera, lurralde-gabetze iraunkorra; azken batean, praktika horiek garatzen dituztenak artistatzat hartzea bera.



## FÉLIX GUATTARI WIKIPLAZAN

Hackitectura.netek hainbat urte daramatza WikiPlaza esaten diogun makina ekosofiko hiritar baten proiektuan lanean<sup>3</sup>. Proiektua 2009ko maiatzean inplementatu zen Parisen, Bastilla Plazan, *Future en Seine* izeneko kultura digita-leko jaialdi baten zati gisa, eta 2009ko irailean, berriz, Figueresen, Gironan, *Ingravid* jaialdiaren barnean.

Gaur egungo lurraldea espazio, fluxu makiniko/elektroniko eta gizarte sareen agentziatze gisa berrinterpretatetik abiatzen da kontzeptua. Ezen lurralde horrek asmakuntza gai izan behar du, egungo gatazka politikoaren espazio zentrala den bitartean.

WikiPlazaren proiektua dispositibo bat da, eta honetan arkitektura espazio bat, elementu teknologiko sorta bat (hardwarea, softwarea, netwarea) eta antolaketa jarduera eta praktika batzuk mihizatzen dira. Agentziatze honi espazio publikoaren gizarte produkzioa bultzatzeko protesi makiniko deritzogu, eta kooperazio zentzuan, sorkuntza zentzuan bideratzen dugu, gizartearen eta teknologien arteko harreman emantzipatzaileak esploratzeko bezalaxe. Software eta jakintza librearen ereduak erreferentzia nagusiak dira. Wikiaren metaforak espazio publiko bat proposatzen du, hiritar komunitate batek editatzeko moduko bat, harreman esparru ireki eta horizontal batean; espazio hori etengabe ari da aldatzen, bertan bizi diren beharren eta desiren arabera. Figuereseko Ramblan, une jakin batean, hurrena gertatu zen: *Egoera Areta* deituan, kupula geodesiko baten barnean *hacker* talde bat buru-belarri ari zen teklak sakatzen, Internet bidezko bideo-emanaldia gestionatzen; kupula erdian mahainguru bat ari ziren egiten gaur egungo arte praktikei buruz, eta partaideen artean komisario burutsu eta probokatzailak zeuden, ikus-entzule arretatsu eta kritikoak zituztela parean; kupularen kanpoaldean, sarrera ondoan, pasealekuaren erdialderantz proiektatzen zen mahai luze baten inguruan, haur multzo handi samar bat jostailuak asmatzen eta eraikitzen ari

zen elementu elkarreragileak erabilia, hardware libreko lantegi batean; hauengandik harata-go, adineko pertsona batzuek eta paseoan ari zirenek behatzen eta jakin-minez hitz egiten zuten egun horietan plazan gertatzen ari zenari buruz. Egunetan zehar, Parisen zein Figueresen, egoerak itxuratze desberdin eta berrizko segida batean gertatzen ziren. Eta ekitaldietako bakoitzaren amaieran, espazioak bizitasun berezi eta berri batez bizi izanak ziren, besteak beste asko izan zirelako gorputzak, makinak eta hiria denbora errealean hibridatze horretan izandako gertakari arrotz samarretako protagonistak.

Gaur egun, WikiPlaza FLOS (Free Libre Open Source) arkitektura gisa garatzeko lanean ari gara, WikiPlaza osatzen duten elementuen/jardueren diseinu modularretik abiatuta. Modulu sistema honi *erabilera matrize* esaten diogu. Ideia zera baita, moduluetak bakoitza —telebistako platoa, Open Medialab, Open Performance, Teknologia lantegiak haurrekin, Partaidetzako kartografia...— GPL eta Creative Commons lizentzien, eskuliburuen eta protokoloen konbinaketa batez garatea, hain zuzen ere kolektiboek, hezkuntza zentroek, sozialek eta kulturek modua izan dezaten moduluetak bakoitzaz eta matrizeaz oro har jabetzeko; eta, software librearen askatasune-kin bat, horiek erabili, kodea irakurri, aldatu eta antzeko lizentzia batez atzera banatzeko. Helburua zera baita, matrizea ondasun komuna bihurtzea eta hazten eta aberasten segitu ahal izatea erabiltzaile eta garatzaile komunitatearen lanaz, deklinazio anitzez, gizarte eta teknologi kooperazioaren laborategi gisa funtzionatuko duten espazio publikoek osatutako sare zabaldu bat sortuz horretan.

## Oharrak

- 1 hackitectura.net arkitekto, programatzaile eta kultur ekintzaile talde bat da, Sevilla-Cádiz-Gijón (Espainia) duena basetzat; *kernela* osatzen dutenak, berriz, Sergio Moreno, Pablo de Soto eta José Pérez de Lama aka osfa dira. Talde honen lana ikusteko: → <http://mcs.hackitectura.net>
- 2 Nicolas Bourriaudek (2008, 127-129) eztabaidatu egiten du, halaber, arte praktika ekosofiko bati buruz, nahiz erabiltzen dituen argudioak, Guattarirengandik beragandik hurbilagokoak, hemen aurkeztuen desberdinak diren. Gerald Raunigek (2008) ere duela gutxi idatzi du makina, gizarte mugimendu eta arte praktika berrien arteko harremanei buruz.
- 3 WikiPlaza Paris proiektuan hackitectura.neteko Sergio Moreno da buru, eta Laura H. Andrade du produkzioan, straddle3.neten laguntzarekin batera. WikiPlaza Sevillako (Espainia) Plaza de las Libertades eraikitzeko nazioarteko lehiaketa irabazi zuen proposamenaren garapen bat da, hackitectura.netek garatua José Morales, Sara de Giles eta Esther Pizarrorekiko elkarlanean (2006). Centro de Estudios Andaluces fundazioaren laguntza du, sistemako softwarearen parte bat garatzeko.

## Bibliografia

- Murray Bookchin, 2007, *Social Ecology and Communalism*, AK Press, Oakland.
- Nicolas Bourriaud, 2008, *Estética relacional*, Adriana Hidalgo Editora, Buenos Aires.
- Beatriz Colomina, 2007, *Domesticity at War*, Actar, Bartzelona.
- Gilles Deleuze, 1987 (frantsesezko jatorrizko edizioa), *Foucault*, Paidós Studio, Bartzelona.
- Gilles Deleuze, Félix Guattari, 2004 (Brian Massumiaren itzulpena; frantsesezko jatorrizko edizioa 1980), *A Thousand Plateaus, Capitalism and Schizophrenia*, Continuum, London (artikulu honetako aipua ingelesezko testuaren egilearen itzulpenak dira, horixe irakurtzen baita honetan: → <http://books.google.es/>).
- Michael Hardt, Antonio Negri, 2004, *Multitude: War and Democracy in the Age of Empire*, Hamish Hamilton-Penguin, New York.
- Félix Guattari, 1995 (Paul Baines eta Julian Pefanisen itzulpena; frantsesezko jatorrizko edizioa 1992), *Chaosmosis. An ethico-aesthetic paradigm*, Indiana University Press, Bloomington-Indianapolis.
- Félix Guattari, 2000 (frantsesezko jatorrizko edizioa 1989), *Las tres ecologías*, Pre-Textos, Valentzia.
- Eden Medina, 2006, «Designing Freedom, Regulating a Nation: Socialistic Cybernetics in Allende's Chile», non: *Journal of Latin American Studies* 38, Cambridge University Press; 571-606 o.
- Gerald Raunig, 2008, *Mil máquinas. Breve filosofía de las máquinas como movimiento social*, Traficantes de Sueños, Madril.
- Suely Rolnik, 2006, «¿Una nueva suavidad?», in Félix Guattari, Suely Rolnik, *Micropolítica. Cartografías del deseo*, Traficantes de Sueños, Madril; 330-336 o.
- Raoul Vaneigem, 1998 (frantsesezko jatorrizko edizioa 1967), *Tratado del saber vivir para uso de las jóvenes generaciones*, Anagrama, Bartzelona.

Testuaren lizentzia: Creative Commons 3.0  
Atribución-Compartir\_igual

Honakoa testu honen I. I bertsioa da. I.0 bertsioa italieraz argitaratu zen, honela: José Pérez de Lama aka osfa, 2009, *L'arte come macchina ecosofica. Guattari oltre Guattari*, non: Marco Baravalle, 2009 (editorea), *L'Arte della Soversione*, Manifestolibri Uninomade, Roma; 119.-132. or.; ISBN: 978-88-7285-477-8